



Baztango Udala

**DIRU-LAGUNTZEN DEIALDI
PUBLIKORAKO OINARRIAK,
GARAPEN BIDEAN DIREN
HERRIALDEEKIN LANKIDETZA
JARDUKETAK EGITEKO.**

**BASES DE LA CONVOCATORIA
PÚBLICA DE SUBVENCIONES
PARA LA REALIZACIÓN DE
ACTUACIONES EN COOPERACIÓN
CON PAÍSES EN VÍAS DE
DESARROLLO.**

Xedea:

Objeto:

Baztango Udala jakitun da bidegabekeriak murriztu eta Milurtekoko Garapen Helburuak lortzen jarraitze aldera, bai eta pobrezia eta bazterketa desagerrarazteko ere, giza garapeneko indizerik txikiena duten herrialdeekiko elkartasun eraginkorra sustatu eta neurri zehatzak hartu behar direla.

Diru-laguntzen xedea proiektuak babestea da, ez osoki finantzatzea. Proiektuek bertzelako finantziazioak izan beharko dituzte.

El Ayuntamiento del Valle de Baztan es consciente de la necesidad de promover una solidaridad eficiente con los países con menor índice de desarrollo humano, para avanzar en la disminución de las injusticias y en el cumplimiento de los Objetivos de Desarrollo del Milenio, así como de tomar medidas concretas que lleven a la erradicación de la pobreza y la exclusión.

El objetivo final de la subvención será apoyar en la financiación a los proyectos. Nunca financiar en su totalidad.

Entitate eskatzaileak:

Entidades solicitantes:

Diru-laguntza jaso ahalko dute nazioarteko lankidetzaren barne dauden proiektuak.

Serán objeto de subvención los proyectos que intervengan en la cooperación internacional.

Batzorde ebaluatzaileak batik bat

La comisión evaluadora tendrá especial

honako puntu hauek hartuko ditu aintzat: *consideración con los siguientes puntos:*

1. Lehenetsun jarduteko sektoreak honako hauek izanen dira eta, haien artean, **haurrei laguntza integrala ematea** lehenetsiko da.

*1. Las prioridades sectoriales de actuación serán las siguientes y entre ellas se priorizará la **Atención integral a la infancia.***

Milurtekoko helburuak:

Objetivos del milenio

1. Muturreko pobrezia eta gosetea desagerraraztea.
2. Oinarrizko hezkuntza unibertsalerako eskubidea.
3. Genero berdintasuna, eta emakumeek parte hartzeko eta erabakitze duten eskubidea.
4. Haurren hilkortasun tasa murriztea.
5. Bertze eritasun batzuen artean, GIBaren, paludismoaren eta malariaren eragina murriztea.
6. Ingurumenaren iraunkortasuna.
7. Entitate bat bultzatzea munduko garapena sustatzeko.

- 1. Desaparición de la pobreza extrema y la hambruna*
- 2. Derecho a una educación básica universal*
- 3. Igualdad de género y el derecho a participar y decidir de las mujeres.*
- 4. Disminuir la tasa de mortalidad infantil.*
- 5. Disminuir la influencia del VIH, paludismo o malaria entre otras enfermedades.*
- 6. Sostenibilidad medioambiental*
- 7. Fomentar una entidad para promocionar el desarrollo mundial.*

Zeharkako ildoak:

Líneas transversales

- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna.
- Parte-hartze komunitarioa eta gizarte-antolaketa.
- Giza eskubideak.
- Garapen iraunkorra.
- Kulturantzatasuna.

- Igualdad entre hombres y mujeres*
- Participación comunitaria y organización social*
- Derechos humanos*
- Desarrollo sostenible*
- Multiculturalidad*

2. Garapen autonomoa:

2. Desarrollo autónomo:

Komunitateek eta horien ordezkariak zuzeneko parte hartzea izan behar dute proiektuak proposatu, kudeatu eta gauzatzean.

Implicando la participación activa de dichas comunidades y de sus instancias representativas en su proposición, gestión y ejecución de los proyectos.

3. Lehenetsunez jarduteko eremuak hauek dira deialdi honetan:

- Nazio Batuen Erakundearen irizpideen arabera, **giza garapeneko indizerik txikiena** duten herrialdeetan paratuko da arreta, bai eta laguntza jasoko duen eremu edo eskualdearen ezaugarri sozio-ekonomikoetan ere.

- Arrisku maila handiko herrialdeak edo gatazka dutenak.

- Zer herrialdeetan den proiektua egingarria eta ematen ahal zaion jarraipena.

4. Bereziki aintzat hartuko dira **jatorriz Baztangoak diren gizon-emakumeak** parte-hartzaile dituzten proiektuak.

5. Orobat, lankidetzaz proiektu horiekin batera **Baztanen herritarrak sentsibilizatzeko** programa bat abiatuko da, komunitatearen parte-hartzea bultzatu eta Ipar-Hego hartu-emanen inguruan jarrera kritikoak eta gogoetak sustatuko dituen. Desoreka ekonomiko, sozial eta kulturalen arazoarekiko jarrerak eta portaerak aldatzea sustatze aldera, eta Iparraldeko estatuetan parte hartzen eta presio soziala egiten irakaste aldera, Hegoaldeko herriek beren garapena aitzina eraman dezaten.

3. *Las prioridades geográficas de actuación para la presente convocatoria son:*

-Se prestará atención a los países con menor índice de desarrollo humano según los parámetros de Naciones Unidas, así como las características socio-económicas específicas del área o región en la que se va a ejecutar.

-Países con un alto nivel de riesgo o conflicto existente

-Países donde es factible realizar y continuar con el proyecto.

4. *Se tendrá especial consideración a los proyectos en los que participe gente originaria del Valle de Baztan.*

5. *Estos proyectos de cooperación deberán ir acompañados de un Programa de sensibilización ciudadana en el Valle de Baztan que incluya actividades que promuevan la participación de la comunidad y el fomento de actitudes reflexivas y críticas en torno a las relaciones Norte - Sur. Para facilitar cambio de actitudes y comportamientos en relación con el problema de los desequilibrios económicos, sociales y culturales, y enseñar a participar y ejercer una presión social en el Norte para que los pueblos del Sur lleven a cabo su propio desarrollo.*

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak

Requisitos a cumplir por las entidades:

a) Pertsona juridikoak izatea, legerari

a) Ser personas jurídicas, legalmente

jarraikiz eratuak eta Elkarten Udal Erregistroan edo Garapenerako Lankidetzarako Agentzia Espainiarraren Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeen Erregistroan inskribatuak, eta dokumentazioa eguneraturik edukitzea.

b) Irabazi-asmorik ez izatea.

c) Estatutuetan edo aitzineko urteetako jardura memorietan adieraziko da, berariaz, haren helburua dela garapenerako lankidetzarekin eta herrien arteko elkartasuna sustatzearekin ikustekoa duten jarduerak egitea.

d) Nafarroako Foru Komunitatean, Araba, Gipuzkoa edo Bizkaian egoitza/delegazioa izatea.

e) Zerga administrazioko estatu agentzia eta gizarte segurantzarekin ordaindu beharreko zergak ordainduak izatea. Egiaztagiriak aurkeztu beharko dira.

f) Baztango Udalarekin zorrik ez izatea, Udalak ofizioz ziurtatuko du.

constituidas e inscritas en el Registro Municipal de Asociaciones o en el Registro de Organizaciones No Gubernamentales de Desarrollo de la Agencia Española de Cooperación al Desarrollo, teniendo su documentación actualizada.

b) Carecer de fines de lucro.

c) Tener como fin expreso, según sus propios estatutos o en sus memorias de actividades de años anteriores, la realización de actividades relacionadas con la cooperación al desarrollo y el fomento de la solidaridad entre los pueblos.

d) Tener la sede o delegación en la Comunidad Foral de Navarra, Araba, Gipuzkoa o Bizkaia.

e) Estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la seguridad social. Presentar la documentación.

f) Estar al corriente de pagos con el Ayuntamiento del Valle de Baztan este, comprobará de oficio que la entidad solicitante se encuentre al corriente.

Eskabideak aurkezteko epea.

Plazo de presentación de solicitudes.

Eskabideak Baztango Udalaren Erregistro Nagusian aurkeztuko dira edo bertzelako entitate ofizialetako erregistroak onartuko dira, ez ordea gizarte zerbitzuko emailera bidalitako eskaerak, hau ez baita erregistro ofizial bat. Deialdi hau Nafarroako Aldizkari

Las solicitudes se presentarán en el Registro General del Ayuntamiento del Valle de Baztan o en cualquier registro oficial en el plazo de 20 días naturales a contar desde el día siguiente al de la publicación de la presente Convocatoria en el Boletín Oficial de Navarra. No se

Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, 20 egun naturalen epean egin beharko dira eskaerak.

admitirán las solicitudes en el email del servicio social.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa***Documentación a presentar***

Eskabideetan honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

Las solicitudes deberán presentarse la siguiente documentación:

-Eskaera.

-Instancia de solicitud.

-Entitate eskatzailea:

-Entidad solicitante.

Erakunde eskatzailearen nortasun juridikoa eta erakundearen ordezkariarena frogatzen dituzten agiriak, jatorrizkoak edo kopia baimenduak:

Documentación acreditativa, mediante original o copia autorizada, de la personalidad jurídica de la entidad solicitante y de su representante:

- Estatutuak.
- Elkartek dagokion Elkarteen Erregistroan izena emana duela erakusten duen ziurtagiria.
- Identifikazio Fiskalerako Txartela.
- Entitatearen legezko ordezkaria nor den erakusten duen ziurtagiria, nortasun agiri nazionala, pasaporte edo horien gisakoa

- *Estatutos.*
- *Certificado de inscripción en el Registro de Asociaciones que corresponda.*
- *Tarjeta de Identificación Fiscal.*
- *Indicación y acreditación del o la representante legal de la entidad, documento nacional de identidad, pasaporte o similar.*

Dokumentu hauek aurreko urteetako deialdietan aurkeztuak izan badira eta aldaketarik ez badago Elkartearen ordezkariak sinatutako ziurtagiri bat aurkeztea nahikoa izango da, aldaketak ez daudela ziurtatuz.

Si esta documentación ha sido presentada en convocatorias anteriores y no hubiera habido ningún cambio, servirá con presentar un certificado de la persona responsable de la entidad certificando que no ha habido cambios en la documentación.

-Agiri batean informazioa bildu beharko da proiektu **teknikoari** buruz

*-Documento que integre información del proyecto **técnico** (fundamentación del proyecto o actividad, objetivos que se*

(proiektuaren edo jardueraren funtsa, zer helburu bete nahi diren, egin beharreko jarduera zehatzak, metodologia eta zer giza baliabide, baliabide material eta finantza-baliabide dauden eskura huraxe burutzeko) eta datu **ekonomikoei** buruz (diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspena, Baztango Udaletik gutxi gorabehera kobratu nahi den diru-kopurua, jarduera bera egiteko aurkeztu diren eskaeren egiaztatzea, banku edo aurrezki kutxako ziurtagiria, kontu korrontearen zenbakia eta IFZa jasoko dituen diru-transferentzia egiteko).

- GGKE eskatzaileak Nafarroan azken urtean honako esparru hauetan egindako jardueren frogagiriak: garapenerako sentsibilizazioa eta hezkuntza, edo, oro har, Baztanerako garapenerako lankidetzak eta sentsibilizaziorako eta gizarte-ekintzarako jardueren proposamena.

- Tokian tokiko bazkidearen edo kontrapartearen (herrialde hartzailea) nortasun juridikoa erakusten duen agiria, jatorrizkoa edo kopia baimendua:

- Estatutuak.
- Legezko eraketaren egiaztatzea, proiektua egin behar den herrialdeko legeen arabera.
- Legezko helbide osoa.
- Entitatearen legezko ordezkaria nor den erakusten duen ziurtagiria, nortasun agiri nazionala, pasaporte edo horien gisakoa.

*persiguen, actividades concretas a desarrollar, metodología, recursos humanos, materiales, financieros con los que se cuenta para su puesta en práctica) como **económicos** (previsión de ingresos y gastos, cantidad aproximada que se desea cobrar del Ayuntamiento de Baztan, justificante de las diferentes solicitudes que ha presentado para la misma actividad, certificado de banco o caja de ahorros en el que conste el número de cuenta corriente y CIF de la entidad a efectos de realizar la transferencia económica) .*

-Documentación acreditativa de las actividades realizadas por la ONGD solicitante, durante el último año en Navarra en el ámbito de la sensibilización y la educación para el desarrollo o relacionadas con la cooperación al desarrollo y la propuesta de actividades de sensibilización y acción social para el Valle de Baztan.

-Documentación acreditativa de la personalidad jurídica del socio o socia o contraparte local (país destinatario) mediante original o copia autorizada:

- *Estatutos.*
- *Acreditación de su constitución legal, según las leyes propias del país beneficiario del proyecto.*
- *Domicilio legal completo.*
- *Indicación y acreditación de la persona representante legal de la entidad, documento nacional de identidad, pasaporte o similar.*

Dokumentu hauek aurreko urteetako deialdietan aurkeztuak izan badira eta aldaketarik ez badago Elkartearen ordezkariak sinatutako ziurtagiri bat aurkeztea nahikoa izango da, aldaketak ez daudela ziurtatuz.

- Proiektua eginen den toki zehazki erakusten duten mapak (herrialdea, mugapena, eskualde edo departamentua, probintzia eta udalerrria).

- Dokumentazio grafikoa, teknikoa eta finantzen arlokoa, eta proiektuaren ezaugarriez ongi jabetzeko eskaini nahi den bertzelako dokumentazioa

- Eskabideekin batera entitate eskatzaileari buruzko dokumentazioa aurkezten ez bada, oinarri honetan errandakoa, Baztango Udalak 10 eguneko epea utziko du, jakinarazi eta biharamunetik aitzina, falta diren agiriak aurkeztu eta egindako akatsak zuzentzeko; hori, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluekin bat. Eskatutako hori ez bada emandako epean betetzen, eskabidea artxibatu eta eskatzaileak atzera egin duela ulertuko da.

Si esta documentación ha sido presentada en convocatorias anteriores y no hubiera habido ningún cambio, servirá con presentar un certificado de la persona responsable de la entidad certificando que no ha habido cambios en la documentación.

-Mapas de localización exacta del proyecto (país, demarcación regional-departamental, provincial y municipal).

-Cuanta documentación gráfica, técnica, financiera y de otra índole que se estime necesaria para la correcta comprensión del proyecto.

-En el caso de que las solicitudes no se acompañen de la documentación referente a la entidad solicitante señalada en esta base el Ayuntamiento del Valle de Baztan, de acuerdo con el artículo 69 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas., conferirá un plazo de 10 días, a partir del día siguiente a la notificación para presentar aquella documentación omitida o para subsanar el defecto presentado. En el caso de que no se de cumplimiento a este requerimiento en el plazo conferido, se archivará la petición y se tendrá por desistida a la peticionaria.

Eskaeren ebaluazioa.

Evaluación de las solicitudes.

Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia buru duen batzorde batek aztertu eta

Los proyectos serán estudiados y evaluados por una Comisión presidida por

ebaluatuko ditu proiektuak. Batzorde horretako kide izanen dira alderdi bakoitzeko zinegotzi bat; eta teknikarien aldetik, gizarte zerbitzuko langile bat eta berdintasun teknikaria.

Beharrezkotzat jotzen diren teknikarien laguntza eskatzen ahalko da, proiektuak aztertu eta ebaluatzeko lanetan lagundu dezaten.

Batzordeak egokitzen jotzen duen informazioa eskatzen ahalko die elkarteei eta, era berean, elkarrizketa bat eskatu elkarte bakoitzarekin, inbertsioen eta jardueren jarraipena egite aldera. Konpromisoak ez betetzeagatik, eta Batzordeak beharrezkotzat jotzen badu, diru-laguntza geldiarazteko eta itzultzeko eskatuko dio elkarteari, honako arrazoi hauek direla medio, eta gainera, hurrengo deialdietatik kanpo geldituko da:

- a) Diru-laguntza jasotzea baldintzak bete gabe.
- b) Dokumentazioa epe barnean ez aurkeztea.
- c) Nahitaez egin behar diren egiaztapenak errefusatzeko edo oztopatzea.

Batzorde ebaluatzaileak honako alderdi tekniko hauek balioetsiko ditu diru-laguntzak emateko; gehienez ere, 30 puntu lortzen ahalko dira:

- Proiektuaren kalitate teknikoari

el concejal de Servicios Sociales, y un concejal o una concejala de cada partido; y del equipo técnico del servicio social participará una técnica y la técnica de igualdad.

Se podrá solicitarse la incorporación del personal técnico que se consideren precisos, para ayudar en el estudio y evaluación de los distintos proyectos.

Esta Comisión podrá requerir a las asociaciones aquella información que estime oportuna, así como solicitar entrevista personal con cada una de ellas para poder realizar seguimiento de las inversiones y acciones realizadas, si se considera necesario por incumplimiento de lo comprometido, se solicitará la paralización y posterior devolución de la subvención por las siguientes causas y además quedará excluida de futuras convocatorias:

- a) Recibir la ayuda sin cumplir los requisitos exigidos.*
- b) No presentar la documentación dentro del plazo fijado para ello.*
- c) Rechazar o entorpecer las verificaciones a las que están obligados.*

La comisión evaluadora valorará para la concesión de las subvenciones los siguientes aspectos técnicos pudiendo obtener un máximo de 30 puntos:

- *En relación con la calidad técnica del proyecto (se puntuará de 0 a 5*

dagokionez (Otik 5era arteko puntuazioa emanen da):

Testuinguruan kokatzea, azpiegiturak, tokiko egoera, helburuen eta proposatutako jardueren arteko koherentzia.

- Entitatearen **esperientzia eta ibilbidea**, proiektua (Otik 5era arteko puntuazioa emanen da):

Tokian tokiko kontrapartearen esperientzia eta gaitasuna, eta herritar onuradunekin eta garapenerako lankidetzako bertze entitate batzuekin edo tokiko erakundeekin duen harremana.

GKE eskatzailearen esperientzia eta haren jarraipen gaitasuna eta, bereziki, aurreko deialdietan diruz lagundutako proiektuen kudeaketan erakutsi duen gaitasuna.

- **Gizarte-alderdiak** (Otik 5 bitarteko puntuazioa emanen da):

Haurrei erabateko laguntza ematea

Milurtekoko helburuak lehenestea

Zeharkako ildoak: (-Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna,- Partehartze komunitarioa eta gizarte-antolaketa,-Giza Eskubideak,-Garapen Iraunkorra,- Kulturantzatasuna).

Onuradun kopurua, zerbitzuen deszentralizazioa, genero-ikuspegiaren

puntos):

La contextualización, infraestructuras, situación local, coherencia entre los objetivos trazados y las actividades propuestas.

- La **experiencia y trayectoria** de la entidad, proyecto (se puntuará entre 0 y 5 puntos):

La experiencia y capacidad de la contraparte local, así como su vinculación con la población beneficiaria y otras entidades de cooperación al desarrollo o instituciones locales.

La experiencia de la ONG solicitante y su capacidad de seguimiento y en especial la capacidad demostrada en la gestión de proyectos subvencionados en anteriores convocatorias.

- **Los aspectos sociales** (se puntuará entre 0 y 5 puntos):

La atención integral a la infancia

La priorización de los objetivos del milenio

Líneas transversales (-Igualdad entre hombres y mujeres,-Participación comunitaria y organización social,- Derechos humanos,-Desarrollo sostenible,-Multiculturalidad).

Número de personas beneficiarias, descentralización de los servicios, tratamiento de la perspectiva de género,

tratamendua, pertsona onuradunen ezaugarriak...

- Finantzatutako proiektuaren **garapena eta segida**, 0tik 5 puntura bitarte.
- **Baztango herritar inmigratzaileak parte-hartzaile** dituzten proiektuak, 0tik 5 puntura bitarte.

Komunitateek eta horien ordezkariak zuzeneko parte hartzea izan behar dute proiektuak proposatu, kudeatu eta gauzatzean.

- **Genero-ikuspegia** proiektu osoan koherentziaz, erabatekotasunez eta zeharkakotasunez txertatzea. 0tik puntu 1era bitarteko puntuazioa emanen zaio.
- **Lehentasunez jarduteko eremuak**, 0tik puntu 1era bitarte.

Nazio Batuen Erakundearen irizpideen arabera, giza garapeneko indizirik txikiena duten herrialdeetan paratuko da arreta, baita laguntza jasoko duen eremu edo eskualdearen ezaugarri sozio-ekonomikoetan ere.

- **Arrisku maila handiko edo gatazka duten** herrialdeak, 0tik puntu 1era bitarte.
- Baztanen **sentsibilizazio** jarduerak aurreikustea (0tik 3 puntura

características de las personas beneficiarias...

- *El **desarrollo y la continuidad** del proyecto financiado entre 0 y 5 puntos.*
- *Proyectos en los que exista **participación de la población inmigrante del Valle de Baztan** entre 0 y 4 punto.*

Implicando la participación activa de dichas comunidades y de sus instancias representativas en su proposición, gestión y ejecución de los proyectos.

- *Integrar la **perspectiva de género** de manera coherente, integral y transversal, en todo el proyecto. Se puntuará entre 0 y 1 punto.*
- *Las **prioridades geográficas** de actuación entre 0 y 1 punto.*

Se prestará atención a los países con menor índice de desarrollo humano según los parámetros de Naciones Unidas, así como las características socio-económicas específicas del área o región en la que se va a ejecutar.

- *Países con un alto nivel de **riesgo o conflicto existente** entre 0 y 1 punto*
- *Previsión de actividades de **sensibilización** en el Valle de Baztan (se puntuará de 0 a 3*

bitarteko puntuazioa emanen zaio). Betiere, Baztango udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantza bete beharko da, bereziki arlo horri dagokion 41. artikulua.

- Lankidetzaren proiektu horiekin batera Baztanen herritarrak sentsibilizatzeko programa bat abiatuko da, komunitatearen parte-hartzea bultzatu eta Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko hartu-emanen inguruan jarrera kritikoak eta gogoetak sustatzen dituena. Desoreka ekonomiko, sozial eta kulturalen arazoarekiko jarrerak eta portaerak aldatzea sustatze aldera, eta Iparraldean parte hartzen eta presio soziala egiten irakaste aldera, Hegoaldeko herriek beren garapena aitzina eraman dezaten.

puntos). Se cumplirá la ordenanza del Euskara, en referencia al artículo 41.

- *Estos proyectos de cooperación deberán ir acompañados de un Programa de sensibilización ciudadana en el Valle de Baztan que incluya actividades que promuevan la participación de la comunidad y el fomento de actitudes reflexivas y críticas en torno a las relaciones Norte - Sur. Para facilitar cambio de actitudes y comportamientos en relación con el problema de los desequilibrios económicos, sociales y culturales, y enseñar a participar y ejercer una presión social en el Norte para que los pueblos del Sur lleven a cabo su propio desarrollo.*

Eskaeren ebazpena

Laguntzen eskaerei buruzko ebazpena emateko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzordea da. Balorazio batzordearen proposamena aztertu ondoren emanen du organo eskudunak bidezko ebazpena, eta interesdunei jakinaraziko die diru-laguntza eskatzeko epea akitzen den egunetik hiru hilabeteko epean, gehienez.

Hitzarmenean zehaztutako kopurua ordainketa bakarrean eginen da,

Resolución de las solicitudes

La Resolución de las solicitudes de subvención se llevará a cabo por la Junta de Gobierno Local una vez estudiada la propuesta de la Comisión de Valoración. Esta Resolución se notificará a las partes interesadas en el plazo máximo de 3 meses desde la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

El abono de la cantidad otorgada se hará en un único pago, pagando el 100% de la cantidad concedida una vez se justifique el

justifikazioan egin ondotik, justifikazioan aitzinera eramandako proiektua urte naturalekoa (2019) izan beharko da. Entitate bati ez zaio justifikatu duen baina diru kopuru handiagoa emanen.

Deialdi honetan aurreikusten diren diru-laguntzak emateko prozedura norgehiagokako araubidearen bidez tramitatuko da, aurkezten diren eskaerak erkatuz, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legeak dioen bezala.

gasto realizado. La ejecución y justificación tendrán que ser del año natural (2019).

El pago nunca superará la cantidad justificada.

El procedimiento de concesión de las subvenciones previstas en esta convocatoria se tramitará en régimen de concurrencia competitiva, mediante la comparación de las solicitudes presentadas, de conformidad con lo dispuesto la ley general de subvenciones 38/2003, 17 de noviembre.

Finantzaketa

Financiación

Diru-laguntza honen finantzaketa Baztango Udaleko Gastuen Aurrekontuetako 1-2399-4820002 "KOOPERAZIO NAZIOARTEKO DIRULAGUNTZAK." kontu-sailarekin egingo da, 36.162 €-ko diru izandapena duena.

Diru-laguntzaren banaketa egiteko diru-sailaren diru izandapen osoa zatitu egingo da eskatzaile guztiek batera lortutako puntuazioaren artean.

Lortutako kopuru hori eskatzaile bakoitzak lortutako puntuazioarekin biderkatuko da. Emaitza hau izanen da eskatzaile bakoitzari dagokion diru-laguntza.

Adibidez:

Diru-saileko diru izandapen osoa:

15.000 €

Puntuazio osoa: 50 puntu

La financiación de esta subvención se hará con cargo a la partida 1-2399-4820002 "AYUDAS COOPERACION INTERNACIONAL." del Presupuesto de Gastos del Ayuntamiento de Baztan, dotada con una cantidad de 36.162 €

El reparto de la subvención se hará dividiendo la dotación total de la partida presupuestaria entre el total de puntos obtenidos entre todas las solicitudes. La cifra obtenida se multiplicará por los puntos obtenidos por cada solicitud. Este resultado será la cuantía concedida a cada solicitante.

Ejemplo:

Dotación de la partida presupuestaria: 15.000 €

Puntuación total: 50 puntos

- Solicitante A : 10 puntos

- A eskatzailea : 10 puntu
- B eskatzailea: 15 puntu
- C eskatzailea: 25 puntu

$$15.000 / 50 = 30$$

Bakoitzari dagokion diru-lagutza:

- A eskatzailea: 10 puntu :
300 x 10 = 3.000 €
- B eskatzailea: 15 puntu :
300 x 15 = 4.500 €
- C eskatzailea: 25 puntu :
300 x 25 = 7.500 €

- Solicitante B: 15 puntos
- Solicitante C: 25 puntos

$$15.000 / 50 = 300$$

Cuantía concedida:

- Solicitante A : 10 puntos :
300 x 10 = 3.000 €
- Solicitante B: 15 puntos :
300 x 15 = 4.500 €
- Solicitante C: 25 puntos :
300 x 25 = 7.500 €

Diru-laguntzaren justifikazioa	Justificación de la subvención
<p>Baztango Udalaren diru-laguntza eskuratzen duten entitateek konpromisoa hartzen dute diruz lagundutako proiektu gauzatuaren gaineko azken memoria aurkezteko Baztango Udalaren erregistroan, 2020ko urtarrilaren 15a baino lehen. Justifikazioetan 2019 urtean aitzinera eramandako proiektuen exekuzio eta justifikazioa aurkeztuko dira. Erregistroa Baztango Udaletxeko bulegoan edo bertze entitate publiko bateko erregistro ofizial bidez egin beharko da, ez dira gizarte zerbitzuko emailera igorritako justifikazioak onartuko.</p> <p>Postaz edo bertze entitate publiko bateko erregistro ofizial batean sarrera emanaz gero, ziurtagiria Gizarte Zerbitzuetako emailera bidali beharko da: gizartezerbitzua@baztan.eus</p> <p>Memoria horretan honako hauek jasoko dira:</p>	<p><i>Los grupos, colectivos y asociaciones cuyos proyectos sean subvencionados por el Ayuntamiento del Valle de Baztan, se comprometen a presentar en el registro del Ayuntamiento de Baztan u otro registro oficial una memoria final de la ejecución y justificación del proyecto realizado en el año natural antes del 15 de enero de 2020. No se aceptarán las justificaciones enviadas al email del servicio social.</i></p> <p><i>En caso de presentar las solicitudes en la oficina de correos o en otro registro oficial, habrá que mandar el justificante al email del Servicio Social: gizartezerbitzua@baztan.eus</i></p> <p><i>La cuenta justificativa contendrá la siguiente información:</i></p> <p><i>a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las</i></p>

a) Diru-laguntza ematerakoan ezarritako baldintzak betetzen dituela frogatzeko jarduketa memoria bat, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak azalduko dituena. Adibidez, hasierako helburua, gorabehera nabarmenak, helburuen lorpena, zenbat onuradun, zailtasunak, genero-ikuspegiaren tratamenduari dagozkion ondorioak... Datuak sexuaren arabera bereziturik aurkeztuko dira.

b) Jarduerak eragindako gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua, non ondokoak identifikatuko baitira: hartzekoduna, agiria, zenbatekoa, jaulkitze-data eta, jada ordaindua izanez gero, ordainketa-data. Diru-laguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera ematen bada, desbideratu dena adieraziko da.

c) Diruz lagundutako Jarduera finantzatu duten bertze diru-sarrerak edo diru-laguntzak xehe-mehe adierazita, horien zenbatekoa eta jatorria barne.

d) Halakorik balitz, aplikatu gabeko geldikinak eta horiei dagozkien interesak itzuli izanaren ordainketa-agiria.

Organo emaileak egiaztatuko ditu, laginketa bat eginez, bidezkoztat jotzen dituen egiaztagiriak, diru-laguntza egoki aplikatu dela arrazoiz frogatzeko. Horretarako, onuradunari eskatuko zaio hautatutako gastuen egiaztagiriak igortzeko.

Epez kanpoko justifikazioak ez dira onartuko.

actividades realizadas y de los resultados obtenidos. Por ejemplo, objetivo inicial, incidencias destacables, logro de objetivos, número de personas beneficiadas, dificultades, conclusiones en relación al tratamiento de la perspectiva de género... Los datos hay que desagregarlos por sexo.

b) Una relación clasificada de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago. En caso de que la subvención se otorgue con arreglo a un presupuesto estimado, se indicarán las desviaciones acaecidas.

c) Un detalle de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia.

d) En su caso, carta de pago de reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados así como de los intereses derivados de los mismos.

El órgano concedente comprobará, a través de las técnicas de muestreo los justificantes que estime oportunos y que permitan obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención, a cuyo fin podrá requerir al beneficiario la remisión de los justificantes de gasto seleccionados.

Las justificaciones fuera de plazo no se aceptarán.

Errekurtsoak

Recursos

Oinarri hauen aurka eta haiek betearazteko hartzen diren egintzen aurka errekurtsu hauetako edozein aurkeztu ahalko da:

1.- Berraztertze errekurtsua, hautara, ebazpenaren udal organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi eta biharamunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluek xedatutakoarekin bat.

2.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, zuzenean arlo bereko epaitegiari edo salari zuzendua, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.1 artikulua agintzen duenaren arabera.

3.- Eta, hautara, gora jotzeko errekurtsua, zuzenean Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Frente a las presentes bases y los actos en ejecución de las mismas se podrán interponer los siguientes recursos:

1.- *Recurso potestativo de Reposición ante el mismo órgano municipal autor de la Resolución, en el plazo de un mes, contado desde el día siguiente a la notificación de la misma de conformidad con lo dispuesto en los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.*

2.- *Directamente recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado o la Sala del mismo orden, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la notificación de la Resolución, en virtud del art. 8.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.*

3.- *Y, con carácter potestativo, Recurso de Alzada directamente ante el Tribunal Administrativo de Navarra, en el plazo de un mes, contado desde el día siguiente a la notificación de la Resolución.*